<table>
<tr><th>NAB-PAKLITAXEL- GEMZITABINA ASTERO (1ean, 8an, 15ean)</th><th>ALBO-ONDORIOAK</th><th>ZAINTZA OROKORRAK</th></tr>
<tr><td>NAB-PAKLITAXEL</td><td rowspan="2">• Kapilarren hauskortasuna/ilea erortzea.
• Goragaleak eta okadak.
• Mukositisa (aftak).
• Beherakoa.
• Neuropatia periferikoa (inurridurak oin eta eskuetan).
• Oin eta eskuetako azazkalen alterazioak.
• Pseudogripe sindromea: artikulazio, muskulu eta hezurretako minak.
• Sukarra lehenengo 24-48 orduetan.</td><td rowspan="2">• Edan 1 ½ - 2 litro likido (8 edalontzi) (zukuak, saldak, ura, infusioak…).
• Komenigarria da komuneko tangari bi aldiz ematea.
• Azala zaintzea:
- Hidratazioa eta eguzki-babesa.
• Ahoko mukosa zaintzea:
- Ahoko higienea, eskuila leunaz.
- Alkoholik gabeko kolutorioak.
- Kamamila-irakuzketak giro-tenperaturan.
- Aftak badituzu:
✓ Bikarbonatodun irakuzketak.
✓ Elikagai bigun epelak.
- Mastekatzeko edo irensteko zailtasuna baduzu:
✓ Kontsultatu.
• Hesteetako patroiaren asalduak edo alterazioak:
- Dietaren bidez bideratzea.
- Aldaketa handia bada:
✓ Kontsultatu.
• Zainketak mieloezabatzean:
- 38 °C-tik gorako tenperatura baduzu:
✓ Joan larrialdietara botikarik hartu gabe.
- Espazio itxiak saihestea.
- Infekzio-prozesuak dituztenekin kontakturik ez izatea.
- Eskuetako higienea.</td></tr>
<tr><td>GEMZITABINA</td></tr>
<tr><td colspan="3"><u>OHIKO ALBO-ONDORIOAK:</u>
• MIELOEZABATZEA = defentsak gutxitzea, plaketak murriztea eta anemia (kontrol analitikoak)
• NEKEA/ASTENIA
- Atsedenaldiak gehitzea.
- Jarduera jakin bati eustea: paseatzea, bizikleta, lanak egitea…
HARREMANETARAKO TELEFONOAK: 945007500 (Call Center, 8:00etatik 20:00etara) eta erizaindegiko 1. kontsulta (5. bulegoa, 14. boxaren aurrean) 945007381.</td></tr>
</table>